

**ELAREN PROPOSAMENAK FORU-ALDUNDIEN  
GOBERNU EKINTZARAKO**

*2011KO IRAILA*

## 0- SARRERA

Gizarte-ereduari dagokionez Hego Euskal Herriaren eta Europako Batasunaren artean bi desberdintasun handi daude: gizarte-babes eta presio fiskal maila askoz baxuagoa. Bi kontuok guztiz lotuta daude.

Hain zuzen, EAEn:

- Gizarte-babesera bideratzen diren baliabide ekonomikoak BPGaren %19 dira; Europako Batasuneko batez besteko maila, berriz, %27an dago. Alde hori dirutan urtean 5.200 milioi euro dira.
- Presio fiskala BPGaren %31 da, eta %41 EBko batez bestekoan. Desberdintasun hori urtean 6.400 milioi euro dira.

Foru-Aldundiek gai hauekin lotuta dauden eskumen garrantzitsuak dituzte, batik bat fiskalitatea (zergak kudeatzeko ahalmena eta zenbait zergatan arauak ezartzekoa, esaterako PFEZean, Sozietateen Zergan zein Ondarearen gaineko Zergan), baita gizarte-zerbitzuen funtsezko xehetasunak ere.

Zerga-politika oinarritzkoa da politika ekonomikoan. Funtsezko tresna izan behar du aberastasuna birbanatzeko eta beharrezko diren zerbitzu publikoak hornitzearren aski izango den dirua biltzeko.

Puntu honen hasieran emandako datuak ikusirik, begibistakoa da EAeko Foru-Aldundiek egin izan dituzten politikak goitik behera aldatu behar direla. Agiri honetan ELAK erakundeon gobernu-ekintzarako proposamenak egiten ditu, batik bat fiskalitateari, gizarte-zerbitzuei, azpiegiturei eta ingurumenari dagokionez.

Gure agirian, gainera, Aldundien jarduna demokratizatu beharra aldarrikatzen dugu; eskumen garrantzitsuak kudeatu arren, beren jardunbidea definitzerakoan ez dago gardentasunik, ez gizartearen parte hartzea bideratzeko modurik.

Agiria amaitzeko, Aldundietan edo hauen azpikontratetan diharduten langileen baldintzei buruzko proposamenak egiten ditugu (soldatak, enpleguaren egonkortasuna, etab.).

Erakundeen ekintza botereen interesen menpe jartzeak krisi aldi politiko, ekonomiko, sozial eta ingurumeneko honetara ekarri gaituzte. Testuinguru honek adierazten du politika publikoak errotik aldatu behar direla, jendearen interesen arabera izan daitezen: lehenetsuna eman enpleguari eta beronen kalitateari, eta eskubide sozialak gehitu, bizi-baldintzak hobetze aldera. Foru-Aldundiek aldaketa honekiko egin behar handia daukate.

## I- ZERGA-POLITIKARI BURUZKO PROPOSAMENAK

### a) Orain arte aplikatu izan den zerga-politika

ELAk salatu egin izan du euskal erakundeen zerga-politika. Salatzeaz gainera, neurri konkretuak eskatu izan ditu fiskalitate bidezkoago eta solidarioagoa izan zedin.

Gure azterketa urteroko txostenetan errepikatu izan da. Ez ditugu agiri honetan berriz jasoko, baina komeni da horietatik lortu diren ondorio nagusiak aipatzea, argigarriak baitira aldatu beharreko puntuak zeintzu diren jakiteko:

- **Soldata ez diren errentetan iruzur fiskal izugarria dago, eta azken urteotan ez da gutxitu.** Datu ofizialek (zeinek ezkutatu egiten dituzte iruzurraren jazarpenak izandako benetako emaitzak) diote PFEZean lan-errentak ditugunok batez beste urteko 21.274 euroko diru-sarrerak aitortzen ditugula, eta aldiz enpresa-jarduerak edo profesionalak dituztenek, 13.141 euro; honek agerian uzten du dagoen iruzurra. Horrenbestez, 2007ko Sozietateen gaineko Zergaren 10 aitortpenetatik 7tan (krisia hasi gabe zegoen urtean, alegia) enpresek galerak, 0 emaitza edota 6.000 eurotik beherako etekina aitortzen dute. Ez dago ekonomia ezkutuari eta iruzur fiskalari buruzko txosten ofizialik.
- **Enpresek, kapitalak eta errenta handiek ordaintzen dituzten zergak zeharo murriztu dira.** Zergak behin eta berriz erreformatu dira (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetzaren gaineko Zerga), betiere helburu berarekin: kapitalak eta errenta handiek zerga gutxiago ordaintzea. Horretarako PFEZean tasa maximoa asko jaitsi dute, eta kapital-errententzako progresibitatea kendu. Sozietateentzat ere zergaren tasa asko murriztu da, eta Ondarearen zein Oinordetza eta Dohaintzen zergak murriztu edo kendu egin dituzte.
- Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak orain arte galarazi egin dute zerga-politika erabakitzerakoan sindikatuen eta gizartearen parte hartzea. Zerga-Koordinaziorako Organoa (ZKO) elkarte itxi eta ilun bat bihurtu da, eta ez die sindikatuei zerga-politika kontsultatu nahi izan. Patronala esparru honetan eroso mugitu izan da, gai honetan erakunde horien solaskide pribilegiatu izan baita. Zergekiko opazitateak funtsezko informazioa ezkututzen digu, adibidez ikuskaritza fiskalaren ingurukoa.
- **Zerga-sistema injustua da, eta gizarte-babesera bideratu beharko liratekeen milaka milioi euro gutxiago biltzen du.** Zerga-politika honen eragina bikoitza da. Batetik, lan-errentak gehiago estutzen ditu, soldata ez diren errenten mesedetan. Bestetik, urtero milaka milioi euro gutxiago biltzen du; diru hau EAEk Europan batez beste dagoen gizarte-babes mailarekiko duen defizita osatzen erabili beharko litzateke.

## **b) ELAren proposamenak**

Egoera hala ikusirik, ELAk ezinbesteko jotzen du EAEn indarrean dagoen zerga-sistema injustua aldatzea. Horretarako egiten ditugun proposamenek gauza bakarra eskatzen dute, borondate politikoa izatea. Zehaztea posible denean zenbateko eragin ekonomikoa izango lukeen aipatuko dugu.

### Iruzur fiskalaren jazarpena

Soldata ez diren errentetan dagoen iruzur fiskal izugarriari jazartzeko honakoak behar dira:

- Soldata ez diren errenta guztiak (PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta BEZearen) iruzurra preskribatu baino lehenago ikuskatzea (hots, urtean ikuskatzen den kolektibo honen %1 eskasetik **%20**era gehitzea).
- Giza-baliabideak zeharo gehitzea, ikuskapen kopurua asko haziko baita.
- PFEZeko modulu bidezko zenbatespen objektiboko erregimena kentzea. Sistema honek PFEZaren tasa aplikatuta baino gutxiago ordaintzeko aukera legala ematen du, eta hau ez da onargarria.
- Zerga gutxiago ordaintzeko aukera ematen duten zirrikituak sakon aztertu eta gero kentzea.
- Aldian-aldian iruzur fiskalari buruzko ikerketak egitea.

### PFEZ

PFEZari buruz hauek dira ELAren eskariak:

- Zerga-eskalan galdu den progresibitatea berreskuratzea. Eskala aldatu egin beharko litzateke, errenta txikienei ezartzen zaien tasa gutxitu (igo egin baita) eta errenta handienei tasak jasoaz. Zehazki, egungo %45eko tasa marjinala duela urte batzuk zegoen %56era itzularazi beharko litzateke.
- Errenta guztientzako tratu bera ezartzea. Kapital-errentek duten pribilegioa kendu behar da, tasa bakarra ezartzen baitzaie, tarifa orokorreko tasarik txikiena baino txikiagoa. Diru-sarrera guztiei tratu bera eman behar zaie. Zergaren likidazio oinarria bakarra izan behar da. Egun, kuota osoa ebazteko likidazio oinarri orokorrari Zergaren eskala aplikatzen zaio, baina aurrezkiaren likidazio oinarriari %20eko tasa bakarra.

### Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateen Zergari dagokionez ELAk honakoa eskatzen du:

- Sozietateen gaineko Zergan tasa nominal bakarra ezartzea, %35a.
- Kenkari fiskalak erabat murriztea, izan ere, benetan ordaintzen den tasa nominalaren erdia baino txikiagoa baita.

Opor fiskalei buruz, ELAk eskatzen du enpresek ogasunei itzuli egin behar dizkietela legez kanpoko jo diren abantailak, eta Bruselari zigorren bat ordaindu behar izatekotan, Sozietateen gaineko Zergan aldi baterako errekaratu baten bidez finantzatu beharko litzateke, bestela, ordaina batez ere langileok ordaindutako zergekin egingo bailitzateke.

### Ondarearen gaineko Zerga

- Ondarearen gaineko Zerga berriz ezarri behar da, baina foru-ogasunek kendu zutenean baino harago joan behar du. 2008an hainbat neurri hartu zen, horiekin jarduera ekonomikoa sustatuko omen zelako; besteak beste, Ondarearen gaineko Zergan %100eko hobaria erabaki zen. Eta gogoratzekoa da aitortu zen azken ekitaldian, 2007koan, zerga honen bidez 180tik gora milioi euro bildu zela.

### Parte hartze sozialerako bideak

- Zerga-politika definitzeko parte-hartzezko prozesu bat egin behar da, eta horren baitan sindikatuak partaidetza izango duten bide instituzionalizatuak paratu behar dira. Halaber, gizarteari gai honekiko kontsulta egitea ere zerga-erreformak egiterakoan erabili beharreko bitarteko izan behar da.
- Ezinbestekoa da gizarteari fiskalitatean gertatzen denaren berri ematea, kolektibo bakoitzak zein ekarpen egiten duen jakinaraztea. Gogora dezagun fiskalitatea dela Foru-Aldundien eskumen nagusia, eta hauek informaziorik ez dutela ematen, propaganda baizik. Ogasunek oso informazio eskasa ematen dute, eta batzuk ez dute zergen inguruan ekitaldia nola joan den berri emateko urteroko argitalpenik egiten. ELAk eskatzen du aldian-aldean taxuzko informazioa, zehatza eman dadila, ekitaldiz ekitaldi alderatzeko modukoa, zerga bakoitzaren kudeaketako parametro nagusiei eta ikuskaritzari buruzkoa.

### Zerga kontuan Legebiltzarretik legegintza ematea

3/89 Legeak, maiatzaren 30ekoa, Zergapideen Elkar-egokitasun, Erakidetasun eta Lankidetasunekoak, dio Eusko Legebiltzarrak eskumen fiskalak dituela. Legeak dioenez, zerga-araudia etengabe aldatzen ari denez, Legebiltzarrak egindako legeetara jo daiteke zerga baten edo gehiagoren xehetasun jakin batzuk arautzeko.

Foru-erakundeek esparru fiskalean duten eskumena defenditzeko Ekonomi Ituna eta Autonomia-Estatutuak aipatzen dituzte. Haatik, benetan orain arte erreforma fiskalak Zerga-Koordinaziorako Organoan hitzartu eta proposatu izan dira, eta erakunde honetan ordezkariak parekidea dute Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek; honek esan nahi du Jaurlaritzak zer esan handia duela zerga-politikari buruz (baita hala egin ere).

Gainera, bai Estatutuak, bai Lurralde Historikoen Legeak eta Ekonomi Itunak berak ere aurreikusten dute Eusko Legebiltzarrak legeak egingo dituela zergei buruz. Guztietan aipatzen da Lurralde Historikoen Autonomia-Erkidegoaren baitan aintzat hartu beharko dituztela Legebiltzarrak egiten dituen legeak zergen inguruko koordinazio, armonizazio eta lankidetzarako. 3/89 Legean ez da hau aplikatzerakoan inongo mugarik aipatzen,

eta horrenbestez Legebiltzarrak gai honetan ahalmena badauka. Lege maila duten arauak egiteko ahalmena bakar-bakarrik Legebiltzarrari dagokio, Batzar Nagusiek onartzen dutena Arau Foralak baitira.

Orain arte bitarteko hau erabiltzeko borondate politikorik ez da izan, eta ELAk oso egokitzat jotzen du.

### **Aipatutako neurri batzuren zenbatespen ekonomikoa**

EAEko ogasunek ematen duten informazio urriak eta gardentasun ezak zeharo oztopatzen du neurrioren zenbatespen ekonomikoa egiteko aukera. Halere, zenbait kasutan zenbatetsi daiteke nahikoa zehazki urtean Foru-Ogasunek zenbat diru bilduko luketen. Datuak eskandaluzkoak dira, eta agerian uzten dute egundoko tartea dagoela bestelako fiskalitate bat aplikatzeko, herritarren beharizanen arabera.

ELAko Azterketa Bulegoak honakoa zenbatetsi ahal izan du:

- Enpresa-jarduerak eta jarduera profesionalak egiten dituztenek PFEZean lan-errenten pareko diru-sarrerak aitortuko balituzte, urtean 282 milioi euro gehiago bilduko liriteke. BEZaren diru bilketak 250 milioi euroko hazkundera izango luke, PFEZeko iruzurrak BEZean ere badela esan nahi baitu.
- PFEZaren tasa marjinal maximoa %45etik %56ra gehituko balitz (tarifan beste aldaketarik egin gabe) urtean 291 milioi euro gehiago bilduko litzateke. Hortaz, diru-sarrerarik handienak aitortzen dituztenek batez beste orain baino ia 10.000 euro gehiago ordainduko lukete.
- EAEko ogasunek kendu zuten Ondarearen gaineko Zerga berriz ezarrita urtean 180 milioi euro gehiago bilduko litzateke.
- Sozietateen gaineko Zergan tasa nominala %35 balitz urtean 900 milioi euro gehiago bilduko litzateke.

Beraz, beste neurri batzuk ere beharrezkoak liritekeen arren, zenbatetsi ahal izan ditugunak aplikatuta urtean 1.903 milioi euro gehiago bilduko liriteke.

## **2- GIZARTE-ZERBITZUEI BURUZKO PROPOSAMENAK**

### **a) Gizarte-zerbitzuak zertan diren**

EAEko gizarte-zerbitzuen egoera ez da bat ere ona. Honakoak aipa genitzake, nolabait deskribatzeko:

- Beharizana duen gero eta jende gehiago dago arreta publikorik jaso gabe. Biztanleria zahartu ahala, azken hamarkadan zerbitzua jasotzen duen herritar kopuruak gora egin arren, hazkunde hau ez da nahikoa izan beharizanak hazi direna asetzeko ere. Hain zuzen, dependetzia

egoeran dauden pertsonen %85a inongo estaldura publikorik gabe dago.

- Eusko Jaurlaritzak eta Foru-Aldundiek hitzartu zuten Gizarte-Zerbitzuen Legeak baztertu egin du dependentzia jasaten dutenek estaldura publikoa izateko eskubidea aitortzeko aukera. **Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea**. Gaur egun estaldura maila aurrekontuek ematen duten tartearen araberakoa da, eta hau erabat murrizta da.
- Gizarte-zerbitzuak pribatizatu eta azpikontratatzeko politika egin dute, zerbitzuen kalitatearen kaltetan; sektorean lan-baldintza oso prekarioak hedatu dira, enpresen etekinek gehitze aldera. Gizarte-zerbitzuak eskubidea izan ordez negozio bilakatu dira.

#### **b) ELAren proposamenak**

ELAk gizarte-zerbitzuen sistema publiko bat aldarrikatzen du, unibertsala eta doakoa. Foru-Aldundiei dagokie sistema hau bermatzea beren lurraldean, baita esparru bakoitzean dependentzia duten pertsonen eskubidea aitortzea ere, beren beharrianak asetuko dituen zerbitzua izan dezaten.

Hauek dira ELAren proposamenak:

- Lurralde bakoitzean dependentzia egoeran dauden guztien eskubidea aitortzea, beren egoera aintzat hartuko duen zerbitzua izan dezaten, sistema publiko, unibertsal eta doako baten bidez.
- Eskubide honen aitortpena Eusko Legebiltzarrean sustatzea, baita Zerbitzu eta Prestazioen Agirian, oraindik ere onartu gabe dagoena, legeak ezarritako epea duela ia bi urte agortu den arren.
- Gizarte-zerbitzuetara bideratutako baliabide ekonomikoak gehitzea, beharrian hauek asetzeko beste plaza izan dadin; horrek sektoreotan enplegua nabarmen haztea ekarriko luke.

### **3- AZPIEGITURA ETA INGURUMENARI BURUZKO PROPOSAMENAK**

#### **a) Egungo egoera**

Gaurko azpiegitura, lurralde-politika eta ingurumenaren egoera jasangaitza da ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik:

- Pertsonak eta salgaiak mugitzeko sistema batik bat garraio pribatua da, garraio publiko politika txarra baita: herritarrei ez die zerbitzu egokirik eskaintzen. Horrek automobilaren erabilpena bultzatzen du.
- Ibilgailu pribatua gehiegi erabiltzearen ondorioz errepideek gainezka egiten dute eta Aldundiek, mugikortasun politika aldatu ordez, errepide

gehiago egiten dituzte (eta gainera ordaindu beharra ere hedatu egiten dute), horrela iraunkorretik bat ere ez duten ohiturak babestu eta indartuaz.

- Hondakinen kudeaketan, aldundiek baztertu egiten dute Europako Batasunak ezarritako hierarkia (Hondakinen Zuzentarau Europarra). Errausteari eta zabortegeiei eman diete lehentasuna, eta prebentzio nahiz birziklatzeko politika eta helburu seriorik ez dute egiten.
- Beren eskumeneko ez diren azpiegitura handiei buruz, aldundiek babes politiko eta ekonomikoa eman diete finantzatzeko hitzarmenen bidez iraunkor eta beharrezko ez diren obrei (AHT, Pasaiaiko kanpo Portua...).

#### **b) Proposamenak**

- Garraio publikoa hobetu eta hedatzea, biztanleria guztiak zerbitzu publikoa izan dezan, kalitatezkoa eta modu onean, garraio publikoa aukerarik hobereana dela bermatuz.
- Errepide berriak egin eta lur gehiago hartzeko aukera azkena izan behar da; lehenik beste politika batzuk eta dauden errepideak hobetu behar dira.
- Foru-Aldundien errepideetan ordaina kentzea edo ez ezartzea.
- Hondakinen kudeaketak Zuzentarau Europarraren hierarkia hartu behar du aintzat: prebentzioa, berrerabilpena, birziklapena, balorizazioa eta deuseztatzea. Alternatibak bultzatu eta aplikatu beharra dago: Atez-ateko bilketa selektiboa, konpostajea, eta osasunerako zein ingurumenerako kaltegarriak ez diren beste balorizazio eta deuseztatzeko teknika batzuk; errausketa baztertu egin behar da.
- Aldundiek ez diote babes politiko eta ekonomikorik eman behar iraunkor eta beharrezko ez diren azpiegitura eta lurralde-politikei (AHT edo Pasaiaiko Portua kasu), eta beste aukera batzuk exijitu eta plazaratu behar dituzte lurraldeak benetan garapen iraunkorra izan dezan.

### **4- SAKONTZE DEMOKRATIKOARI, GARDENTASUNARI ETA GIZARTEAREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO PROPOSAMENAK**

#### **a) Gaurko egoera**

- Arestian fiskalitatea jorratzerakoan ere esan dugunez, Foru-Aldundien jokabidea orain arte ez da gardena izan.
- Aipatzekoa da nola ezkututzen duten, propio, mundu ekonomiko antolatua eta honen interesek gure politiko, legegile eta erakundeetako goi-karguekin duten harremana. Horregatik, lobby-en jokabideak (interes pribatuak, ez



orokorrak defenditzen dituzten presio-taldeek (jokabidea, alegia) gardena izan behar du.

- Herritarrak politikatik urrunduta egiten dira, besteak beste ikusten dutelako gizarteari informazio egokirik ez zaiola ematen, gertatzen ari dena juzkatzeko beharrezko litzatekeen informazioa. Honen adibide bat dugu informazio eta agiri ofizialak lortzea oso zaila eta are ezinezkoa gertatzen dela sarri.

## **b) ELAren proposamenak**

ELAk beharrezko ikusten du kultura politiko demokratiko bat sustatzea. Horretarako Foru-Aldundietan sakontze demokratikoa ezinbestekoa da, beste erakundeetan bezalaxe, honako ildoak urratuz:

- Erreferendumak parte hartzeko bide legez erabiltzea, erabaki politikoak hartzerakoan. Informazioa eta eztabaida funtsezkoak dira gizarte bat demokratikoa dela esan ahal izateko. Orain arte EAEko erakundeek erabaki politikoak hartzeko erreferenduma erabiltzeari uko egin izan diote. ELAk uste du onerako eta beharrezko dela erreferenduma erabiltzea, batik bat gai garrantzitsuetan eta gizartean eztabaida handiena eragin dutenetan.
- Arduradun politikoek hartuemanak (agenda) publiko egitea. Beharrezkoa da ordezkari publikoek beren harremanak gardentasunez erakustea, herritarrek jakinaren gainean egon daitezkeen karguek zein presio-lobbyekin dituzten tratatuak.
- Gipuzkoa Aurrera bezalako erakundeek deuseztatzea, erakundeek lehenetsuen gaineko erabakiak esku pribatuetan jartzea suposatzen baitu.
- Agiri ofizialak lortzeko aukera bermatu behar da. Informazio hau publikoari oro har eta gizarte-erakundeetara eman behar zaie. Honek gobernuaren eta agintarien jardunaz ideia zehatza izateko aukera emango luke. Gardentasunak murriztu egingo luke boterearen abusua izateko arriskua.
- Bateriaezintasun erregimena hedatzea. Honela presio-talde guztiek gardentasunez emango dute bere hartu-emanen berri, herritarrek behar bezala ezagutu dezaten alderdi politiko jakin batzuk zein interes-talderen babesa duten. Hain zuzen, EB bertan, presio- edo botere-taldeeira buruz arautzen ari dira. Gardentasunaren Ekimen Europarra hasi zuten, baita honekiko Liburu Berdea egin ere, hiru helbururekin: lobbying-aren gardentasuna, iruzurraren aurkako borroka eta legegileen estandar etikoak zein kontrola.

## 5- FORU-ALDUNDIETAKO LANGILEEN BALDINTZEI BURUZKO PROPOSAMENAK

### a) Egungo egoera

Erakunde foraletako langileen baldintzak kezkatzekoak dira; enplegu publikoaren eta honen azpikontratazioaren egoera larria da:

- Aldundietako negoziazio kolektiboa guztiz kaltetuta dago, erakundeek akordioak ez baitituzte bete, eta langile publiko guztiei erosteko ahalmena nahiz bizi-baldintzak mantentzeko bermatzen ez dituzten baldintzak ezarri dizkiete.
- Bereziki larria da erakundeotako batzutan joko-arauak ez direla inondik ere errespetatzea.
- Praktikan enpresa aldatuz gero ez dago kontrolatzeko modurik langile azpikontratatuaren subrogazioa bermatzen dela.
- Azpikontratazioari ematen zaio lehentasuna, ez zuzeneko kontratazioari, eta honek bi eragin ditu: negozio-esparruak enpresa eta enpresario 'lagunei' esleitzen zaizkie eta azpikontratetako lan-baldintzak prekarizatzen dira.
- Erantzun egokirik ez zaio ematen lan-osasunari, ez lan- eta famili-bizitza kontziliatzeko neurriei ere. Hau are larriagoa da enpresa azpikontratatuetan.
- Enplegu publiko eskaintza (EPE) deialdi gutxi egiten da, eta horregatik mantentzen da enplegu prekarioa: aldi baterako eta bitarteko kontratuak.

### b) ELAren proposamenak

ELAk ezinbesteko ikusten du berehalako erantzuna ematea erakunde foraletako lan-baldintzekin zerikusia duen guzti horri, enpleguari eta berau azpikontratatzek dakartzan ondorioei dagokienez. Horretarako hau eskatzen dugu:

- KPIz gaindiko soldata igoerak.
- Enplegu publikoa bermatuko duten EPEak deitzea, azken urteotan gobernuek erabaki duten ezegonkortasun egoerak arindu eta lan-poltsak eta prekarietatea (aldi baterako eta bitarteko enplegua) murrizte aldera.
- Zerbitzuak azpikontratatzeari uko egiteko erabakiak har daitezela.
- Lan- eta famili-bizitzaren kontziliazioa sustatzeko neurrietan aurrera egitea, baita lan-osasun eta –segurtasunari buruzkoak ere.
- Azpikontratatuta dauden zerbitzuekiko egin beharrekoak:
  - Administrazioak zuzenean eskaini behar ditu, era berean egungo langileei dauden lanpostuetan jarraitzeko eskubidea errespetatzen zaielarik.
  - Azpikontratatuak langileen (enpresa publiko eta partzipatuak barne) eta enplegatu publikoen lan-baldintzen ekiparazioa lortzeko urratsak egitea.

- Subrogazio berme osoa (enplegua eta lan-baldintza guztiak mantentzea), dagoeneko azpikontratatuta dauden zerbitzuak esleitzeko prozesuetan.
- Erakunde foralek neurriak eta konpromisoak hartuko dituzte, baita betetzen ote diren behatu ere, Aldundientzat lan egiten duten enpresetako sail guztietan indarrean dauden hitzarmen kolektiboak aintzat hartzen direla bermatzeko, esaterako herri-lanetan.
- Erakundeek bermatu egin behar dituzte lurralde desberdinetako langileen bizi-baldintzak, enpresei langileen baldintzak errespetatzea exijituz eta hori betetzen ez denean dagozkion erabakiak hartuz.
- Beraz, erakunde foralei eskatzen diegu behar diren urratsak egin ditzatela administrazioko enpleguarekiko eta beronen baldintzekiko konpromisoa dutela adierazteko, eta bere ardurapeko esparruetan prekarietatea desagerraraziko dutela ziurtatzeko.